



2022/2023 denboraldia

## **35. ZIRKULARRA**

### **2. URTEKO ALEBIN MUTILEN HOBKUNTZA TXAPELKETA**

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Futbol Federazioaren laguntzarekin eta jokalarien heziketa prozesuaren kalitatearen maila igotzeko interesa duen Real Sociedad klubaren lankidetzarekin, Gipuzkoako eskola kirolean irakaskuntza hastapeneko jarduera baimendua den bigarren urteko alebin mailako kirol eskolen arteko eta klubaren lehiaketa antolatzen du.

#### **1) KLUB PARTAIDEAK**

##### **GRUPO 1 TALDEA**

- 1 ALLERRU K.E.
- 2 LANDETXA K.T.
- 3 ORERETA KAFAA, F.C.
- 4 ANTIGUA LUBERRI K.E.
- 5 TEXAS LASARTEARRA C.F.
- 6 IDIAZABAL K.E.

##### **GRUPO 2 TALDEA**

- 1 MUTRIKU F.T.
- 2 ALOÑA MENDI K.E.
- 3 BERGARA K.E.
- 4 ELGOIBAR C.D.
- 5 URKI C.D.
- 6 AMAIKAK BAT K.E.

#### **2) LEHIAKETA SISTEMA**

Bigarren urteko alebinen kategoriako hobekuntzarako ibilbidean 12 taldek eman dute izena. 6 taldeko 2 multzotan banatuko dira. Lehiaketa hau bi fasetan jokatuko da:

##### **1. FASEA: LEHIAKETAREN ANTOLAKETA ETA SAILKAPEN IRIZPIDEAK**

Fase hau **EZ DA KONTZENTRAZIO MODUAN JOKATUKO**; aitzitik, egutegian etxeko talde gisa agertzen den klubaren zelaian jokatuko da.

Partidak egun hauetan jokatuko dira (beti igandeetan):

- 2022/10/16



- 2022/11/13
- 2022/11/20
- 2022/12/04
- 2022/12/18

Fase hau itzuli bakarrera jokatu da (5 jardunaldi).

## **2. FASEA: HOBEKUNTZA MAILAKO EGUTEGIA**

Errendimenduko hastapena jokatzeko aurreko fasean sailkatu ez diren taldeek (21 talde) eta ikasturte hasieratik hobekuntza mailan izena eman duten taldeek (12 talde) bigarren fase honetan jokatu dute (guztira, 33 talde). Futbol eskoletan izen-ematea errazte aldera, **Gipuzkoako Foru Aldundia bera arduratuko da Eskola Kirolaren aplikazioan eskola guztietako inskripzioak tramitatzeaz**. Lehenengo fasean parte hartu duten jokalariek inskribatuko dira.

Fase hori egutegian etxeko talde gisa agertzen den klubaren zelaian jokatu da, lehenengo fasean bezala.

33 talde horiek, 5 taldeko 3 multzotan eta 6 taldeko 3 multzotan banatuta, itzuli bakarrera jokatu dute fase hau (5 jardunaldi), honako egun hauetan (beti igandeetan):

- 2023/01/15
- 2023/01/29
- 2023/02/12
- 2023/02/26
- 2023/03/19

Fase hori amaitzean, 2022ko maiatzaren 8an, talde horiek denboraldi amaierako festa bat jokatu dute; horren ezaugarriak laster zehaztuko dira.

Fase hori amaitzean, 2023ko apirilaren 2an eta maiatzaren 7an, talde horiek, antzeko postuan daudenen arteko partidak jokatu dituzte, aurrerago zehaztuko den moduan.

## **3) JARDUEREN BATERAGARRITASUNA**

**Jarduera hauetan aritzeko ezinbestekoa da ikasleek ikastetxeetako eskola kiroleko programan izena ematea eta parte hartzea.**

## **4) LIZENTZIAK**



Talde bakoitzeko lizentziak gehienez 16 izango dira. Hala ere, 2022ko azaroaren 30a baino lehen, altak eta bajak konpentsatu daitezke. Tramite hauek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako Eskualde Bulegoetan egin daitezke.

Aurretiko fasean jokutzen diren partidetan, taldeek Kiroletako Eskualde Bulegoetan sinatutako triptikoa aurkeztu beharko dute. Berau eskola kiroleko aplikazioan lor daiteke.

Lehiaketako lehen jardunalditik, taldeko kideak identifikatzen dituen lizentziarik edo egiaztagiririk ez aurkezteak partida galtzea ekarriko luke.

## 5) ADINA

2011n jaiotakoak soilik.

## 6) JOKALARI KOPURUA ZELAIAN

Gehienez 8 jokalaria  
Gutxienez 6 jokalaria

Gutxieneko kopurua lortzen ez bada, behar diren jokalariai lortu ez dituen taldeari partida galdutzat emango zaio, nahiz eta partida jolasteko aukera egon.

## 7) IRAUPENA

Partidek **60 minutuko iraupena** izango dute, **20 minutuko 3 zatirekin** (azken zatian aldaketa libreak izango dira). **Bigarren zatian, aurrekoan parte hartu ez duten ikasleek parte hartu beharko dute. Hala ere, aldatutako jokalariek bigarren zatian ere parte hartu dezakete, baina lehen zatian jokatu duten jokalariai ordezkatuz bakarrik.**

## 8) DEIALDIA

**Taldea osatzen duten jokalarien %75ek deialdian eta partiduan egon beharko dute. Arau hau betetzen ez bada eta aurkako taldearen aurretiko salaketa bat baldin badago, partidua galdutzat emango da salatua izan den klubak aurkezten dituen ezinbesteko arrazoiak behar bezala justifikatuak eta frogatuak izan ezean.**

## 9) BALOIA

Baloia 4 zenbakiduna izango da

## 10) ZELAIAREN ETA ATEEN NEURRIAK



Zabalean jokatuko da, eta luzera eta zabalera zelai bakoitzak dituen neurrien arabera izango dira. Dena den gutxi gorabehera ondoko neurriak izango dira: jokalekua 65 eta 50 metro arteko luzera eta 45 eta 30 metro arteko zabalera duen angeluz uzena izango da. Ateak 6 metro luzeran (zutoina) eta 2 metro altueran (langa) izango du. Neurri hauek kontuan izanda, jokalekua, salbuespen bezala, zelaiaren luzera aprobetxatuz marraztu daiteke.

### **11) PENALTI EREMUA**

Ateko marrarekiko bi lerro elkarzutak margotuko dira, ateko zutoin bakoitzetik 9 metrotara. Aipatutako lerroak zelai jokoaren barnealdera 9 metro sartuko dira eta ateko linearekiko lerro paralelo batekin elkartuko dira. Lerro hauek eta ateko lerroak egiten duten eremua, penalti eremua izango da.

### **12) PENALTI PUNTUA**


9 metrotara eta erdian markatuko da penalti puntua.

### **13) ATE EREMUA**

Penalti eremua bezala, baina ateko zutoin bakoitzetik 3 metrotara.

### **14) JOKOZ KANPOKO EREMUA**

Ateko lerrotik 13 metrotara.





## **15) ASEGURUA**

**Eskola arteko lehiaketa bat denez**, Gipuzkoako Futbol Federazioari **ez dagokio laguntza medikuaren estaldura**, beraz lesioaren bat gertatuz gero, **Gizarte Segurantzza Publikora** edo jokalariaren ama edo aitak duen aseguru pribatura joan behar dute.

## **16) EPAILEAK**

Epaille federaturik ez dagoenez, etxeko klubak izendatuko du kategoria horretan arbitrajelanak egiteko pertsona bat.

Lan hori errazteko, gure web orrian, Dokumentuak/aktak betetzeko atalaren barruan, arbitraje aktaren eredu bat deskarga daiteke.

Era berean, jakinarazten dizuegu, kategoria horren kontrol teknikoa behar bezala egin ahal izateko, **ezinbestekoa dela Federazioari partidaren akta helaraztea, barruko posta edo [futbol@fgf-gff.org](mailto:futbol@fgf-gff.org) posta elektronikoko bidez, betiere asteleheneko 09:00ak baino lehen.**

## **17) GAINONTZEKO ARAUAK**

Gainerako arauak hamaikako futbolerako ezarritako joko arauen berdinak izango dira.

## **18) DIZIPLINA ARAUDIA**

Eskola kirolari buruzko 2013ko uztailaren 23ko 391/2013 DEKRETUAREKIN bat etorritz, Gipuzkoako Foru Aldundiak eginkizunak eskuordetzearen ondorioz diziplina ahalmena honela gauzatzen da:

- a) Lehen auzialdian, lehiaketen garapen teknikoaz arduratzen den kirol federazioko diziplina batzordeak.
- b) Bigarren eta azken auzialdian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak. Honen ebazpenek amaiera emango diote administrazio bideari eta, arau juridikzionaleri jarraiki, horien aurkako errekurtsioa aurkeztu daiteke.

## **19) BABES OROKORRA**

Zirkular honetan xedatutakoa aldatu egin daiteke denboraldian zehar ezinbesteko arrazoiengatik, eta, 2022ko ekainaren 27an Batzar Nagusiak berariaz eskuordetuta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izango du soilik lehiaketa gelditzea edo/eta lehiaketara itzultzea erabakitze eskumena, sortzen diren ezinbesteko



arrazoiak kontuan hartuta; txapelketa denboraz luzatzea; lehiaketak pandemiaren amaierarekin bat etortzea, baita horrekin zerikusia duen beste edozein erabaki ere.

Zirkular honetan aurreikusitako ondorioetarako, ezinbesteko kausak egiaztatuzat joko dira lurralde jakin batean gobernu-araudi edo -agindu bat dagoenean, eta, hala badagokio, eskumena duen justiziak behar bezala abalatuta, kirol-jarduerak garatzea eragozten duenean, dela edozein mailatako entrenamenduak, dela lurralde horretan partidak jokatzea, dela muga horiek dituen alarma-estatua dekretatu izana.

**Donostia, 2022ko urria**

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA  
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL

  
Iñigo Letamendi Artetxe  
Idazkari Nagusia-Secretario General